



4 EUSKARA

## Gida baimena euskaraz ateratzeagatik saria

Gero eta gehiago dira gida-baimena euskaraz ikasteko pausoa ematen duten herritarrek, 2012. urtean 113 ikasle izan ziren. Udalek ekimena sustatzeko, autoeskola bakoitzeko azterketa teorikoa ordaintzeko dirulaguntza zozketatzen dute ordutik. Aurten Lasarte-Oriako irabazleak Haizea Bravo, Iker Elizegi eta Saioa Gomez izan dira. Atzo jaso zuten saria Udaletxean Boris Nogalesen eskutik.



5 ELKARRIZKETA

## Zaintzaileen zaintzaz hausnarketa

Arantza Sein psikologoak gidatzen du zaintzaileentzako laguntza taldea Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuek bideratuta. Honetaz gain, "emozioen kudeaketa" ikastaroa eskaini berri du eta arrakasta ikusita, lau saioz osatutako ikastaroa apirillean errepikatuko dute. Senideen zaintzan dabiltzanek taldearen babesa izatea funtsezkoa dela dio eta emozioak ondo kudeatzen jakitea egunerokoa asko erraz deza-keela.



Bea eta Cesar; Kontukantoi ipuin kontalarien saioa egin zen Manuel Lekuonan Emakumearen Nazioarteko egunaren baitako ekintza berezien baitan.

# Emakumearen eguna

Ekintza ezberdinak egin dira herrian gaurko egunarekin bat egiteko

Emakumeen zentro zibikoak antolatuta hainbat ekintza izan dira astean zehar gaurko egunarekin lotuta. Astear-tean ipuin kontalariak eta bart hitzaldia eskaini zuen Alazne Zalduak sexualitatearen inguruan. Gaurkoan antzerkia eta elkarretaratzea.

Udalak Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta "gizon eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko lanean aritzeko" duen konpromisoa azaldu nahi izan du publiko egindako adierazpenean.

Horrela "Aldaketa-garaia bizi dugun Euskal Herrian. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko garaia. Emakumeak aldaketa horren subjektuak izan daitezten, politika

feminista garatzea ezinbesteko konpromisoa da".

Publiko egindako adierazpenean antolatutako ekintzetan parte hartzea deitzen dituzte herritarrek.

### Ekintza bereziak

Astear-tean Kontukantoi ipuin kontalarien saioa egin zen Manuel Lekuonan eta bart sexuaz mintzatu zen Alazne Zaldua. Adin batetik aurrerako harremanak izan zituen hizpide.



Alazne Zalduaren hitzaldia Zentro Zibikoan izan zen.

Gaurko, elkarretaratzea 16:45ean Manuel Lekuona aurrean eta antzerkia izango da bertan 19:30ean "Milagro en casa de los Lopez de..." antzezlanean.

Semblante Andaluz elkar-teko emakumeek ere ospatu-ko dute eguna elikadurari buruzko hitzaldia eta afari bereziarekin. Elkartean bertan egingo dituzte.

## Bideo Lagunak

# TIEN 21

Etxekotresna elektrikoetan adituak

## ZANUSSI

GARBIGAILU  
1000 rpm · 6 kg

**Eskaintza**

# 289€

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

Me gusta

10€-ko beherapena egingo dizugu zure hurrengo erosketan produktu hau erosi edo Facebook-ean Bideo Lagunak-en lagun egiten bazara

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

Neure kabuz



Gorka Lasa

Aldarrikatu ala ospatu?

Ez dago etxean geratzeko aitzakiarik, kalera irten eta aldarrikapenarekin bat egiteko eguna da. Emakumeen Nazioarteko Eguna-ren harira hainbat ekitaldi egingo baitira gaur Euskal Herrian. Emakumeen eskubideen alde, manifestazioak antolatu dituzte hainbat alderdik, sindikatuk eta mugimendu feministek, eta agerraldiez gain, hitzaldiak, lehiaketak eta erakusketak ere antolatu dira.

Berdintasuna aldarrikatuko dute gobernu, erakunde eta hedabide guztiek, asmo onen berri emango dute, indarkeria matxistaren gaitza deitoratuko dute, eskubideak bermatu beharra aipatuko dute, eta berdintasuna, batez ere berdintasuna aipatuko dute behin eta berriz. Ezberdintasun honen aurka borrokatzeko instituzio desberdinak daudela, eta legegintzan lorpen handiak eman direla.

Gure gizartea ez dela matxista, baina badakigu gizon ala emakume jaiotzeak abantailak eta pribilegioak, edo, desabantailak eta zailtasunak dakartzala. Herralde aurreratua eta zibilizatua garena, hemen emakume libreak nahi duena izan eta egiteko eskubide berberak dituela, berdintasunak bermatzen dizkiolako.

Eta bihar zer? Urteak daramatzagu Martxoaren 8an gizon-emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzen, baina jokabide matxistak behin eta berriz errepikatzen dira gizarte maila guztietan.

Generoei sozialki ezarritako mugak eta estereotipoak hautsi behar dira, eta emakumeak baztertzin eta makurtzen dituen eredu maskulinoekin amaitu.

Gizartea osatzen dugun guztiok, beste baloreez gain, errespertuan, erantzukizunean eta berdintasunean oinarritutako heziketa beharko genuke eredu aurrerantzian Martxoak 8 eguna OSPATU ahal izateko.

Zorion agurrak



Oler

Zorionak eta 4 txokolatezko muxu aitona amona eta familiaren partetik.



Eloy

Zorionak maitia. Oso ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat Sandra eta Naiararen partetik. Muuuuak!



Judith eta Garazi

Zorionak zuen hamargarren urtebetetzean Yaiza, aita, ama eta familia guztiaren partetik. Ondo ospatu zuen eguna!!!



Uxue

Zorionak bollito! 15 milioi muxu familia osoaren partetik. Jo ta ke ehun bete arte!!



Isa

Zorionak Isa! lortu dugu zu kamara atzetik ateratzea, katxiporreta! Dinbi muxu handi bat!



Iraia

Zorionak maittia, oso ondo pasa degu zure 5.garren urtebetetzean.



Maialen

Zorionak bihotza eta hiru muxu zure aita eta amaren partetik.



Juan eta Maria Antonia

Zorionak seme alaba eta biloben partetik.



Almar

Zorionak zure lehen urtebetetzean guraso eta aiton amonen partetik!! Muxu handi bat!!



Lur

Zorionak nenilla! 7 muxu amatxo eta aitaxoren partetik.



Iker eta Jose Antonio

Zazpi urte dagoeneko. Zorionak txapeldun!! Zorionak zuri ere Toño zure 73. urtebetetzean!! Familia guztiaren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza Inmobiliarioak

- Garaje marra alokatzen da Hipodromo Etorbidean. 648 614 769
- Garaje itxia alokairuan Geltoki kalean. Kokaleku ona. Harremanetarako zenbakia, 615 720 367.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649 526 766
- Logela alokairuan Urnietan, neska izan behar du. Telefonoa: 626 057 485
- Logela Alokatzan da Zubietan. Etxetik bista ederra dago. Harremanetarako, 655 744 039.
- Logela alokatzen da Lasarte-Oriako pisu batean. 250 euro hilabetero. 600 612 085.

Lan-eskariak

- Negutegietan, garbitzaile edo frutarekin lana egingo nuke. 625 423 540
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... edozertarako prest. Orduka edota asteburu zein jai egunetan lan egiteko ere bai. 943 404 015
- Neska arduratsuak, lana bilatzen du 3.adinekoen edo umeen zainketa edo garbiketa lanetan. Erreferentzia eta papelekin. Harremanetarako zenbakia, 682 812 861.
- Emakume eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak, zein haurrak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauka. Harremanetarako, 666 708 963.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Mikel OIague Herrera, martxoaren 2an.
- Erik Ortega Dominguez, otsailaren 27an.

Heriotzak

- Fortunata Zuaznabar Arrieta, martxoaren 2an, 100 urte zituela.
- Margarita Omeñaca Echegaray, martxoaren 2an, 71 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 8**  
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Larunbata, 9**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Igandea, 10**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Astelehena, 11**  
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Astearte, 12**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Asteazkena, 13**  
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Osteguna, 14**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aldabe, Perkaiztegi 8  
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557  
Legezko gordailua:  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
Inprimategia  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Alek zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I, Maider Azurmendi, Jon Altuna E  
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:  
Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Armuti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi  
Informatikoa:  
Xabier Amadoz



## HEZKUNTZA

## Landaberri BHI saritua

Kalitatezko "K" saria jaso zuen astelehenean Iñigo Urkulluren eskutik

Hezkuntza sailak "Kalitatea hezkuntzan" jardunaldiak antolatu ditu astelehen eta asteartean Bilboko EHU-n. Hasiera ekitaldian Euskadiko zazpi ikastetxeeri Kalitatezko "K" saria eman zieten ikastetxeetan egindako lanarengatik eta horietako bat Lasarte-Oriako Landaberri BHI ikastola izan zen.



Landaberri BHI-ko Julen Ollokiegi eta Marijo Murua saria eta ziurtagiria jasotzen.

Landaberri BHI ikastolako arduradunak oso pozik daude. Urteetako lan nekezaren ostean, kalitatezko ziurtagiria lortu dute. Astelehenean, martxoaren 4an, "Kalitatea Hezkuntzan" jardunaldien harrera ekitaldian jaso zuten saria Bilboko EHU-ko areto nagusian.

Landaberri BHI-ko Marijo Murua zuzendariak eta Julen Ollokiegi kalitate arduradunak Iñigo Urkullu lehendakaria, Begoña Garamendi Beriztapen Zuzendaria eta Kristina Uriarte Hezkuntza sailburuaren eskuetatik jaso zituzten "K" saria eta ziurtagiria.

#### Sei urteko prozesua

Euskadiko ikastetxeek haien hezkuntza kalitatean eginda-

ko lanarengatik eskuratu dezakete ziurtagiria. Aurten zazpi ikastetxe izan dira sarituak eta horietako bat Landaberri BHI izan da.

Landaberri BHI-ko arduradunek azaldu digutenez, saria lortzeko prozesu luzea jarraitu eta auditorietza bat pasa eta gairiditu behar izan dute.

2007-08 ikasturtean Landaberri DBH ikastetxeok arduradunek "Kalitatea Hezkuntzan" izeneko proiektuari heldu zituzten.

"6 urte daramatzagu kalitatezko zigilua lortzeko. Lan luzea izan da: antolamendua eta funtzionamendua modu iraunkorrean ezarri, harrera

plana zehazten, ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak definitu... " aipatu digu Ollokiegi. Horretarako beste ikastetxeek egindako lanak ikertu eta sistema desberdinak aplikatu dituzte.

Eta lan honi jarraipena emateko hobekuntza etengabeko prozesua martxan jarri dutela ere azpimarratu du, "ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuetan hausnarketak egin, egindakoa errebisatu eta hobetuz, gure praktika eta aurretik adostuta dagoenaren artean koherentzia zainduz, azken finean gure eskolaren funtzionamendua etengabe hobetu nahian".



#### "PYRENAEUS SAREA"

### Kokapena, kultura eta balioak

Ganbo Iturri elkarteak antolatutako "Pyreneus sarea" hitzaldi zikloa hasi zen asteartean.

Aste honetan izan diren bi saioetara hurbildu diren herritarrek batetik hautu piriniararen balio geostrategikoari buruzko hitzaldia entzun zuten Enrique Ayerbe geografoaren eskutik eta bestetik atzo Manu Gonzalez medikuak kirolak giza balioak sortu eta garatzeko duen garrantziaz mintzo zen.

Hitzaldi sortaren helburua komunitate pirenaiakoak eta eskual lurralde izan duten elkarrekikotasun kulturala aztertzea da. Hurrengo asteazkenean, martxoaren 13an, beste saioa bat izango da. Honetan, Jose Mari Larramendi enpresariak, "Lana da erabakigarria, kapitala berriz bitartekoa" hitzaldia eskainiko du.

#### EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

### Emakumea eta artea

Pilar Soberon artista lasarteoriatarak beste zazpi artistarekin batera "El hilo conductor" erakusketa du Bilboko Vanguardia galerian. Honetan hari eta oihal zatiekien egindako artelanak daude ikusgai.

Erakusketa hau Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan MAV (Mujeres en las artes visuales) elkarteak antolatu duen Emakumeen Begiradak jaialdiaren barruan dago kokatua eta apirilaren 19ra arte izango da ikusgai.

#### MUNTTERI-AEK

### Poltsak egiten ikasi

Munntteri-AEK euskaltegiko ikasleek atzo ikastaro berezia izan zuten Emakumeen Zentro Zibikoan. Nora Izagirre diseinatzailearen eskutik, ikasleek poltsak nola egin ikasi zuten. Honek patroia nola erabili, oihalak nola moztu eta josi azaldu ziren. Ikasleek emakume, zein gizonen adi jarraitu zituzten haren azalpenak.



## "Sentitu, pentsatu, ekin!" saioaren grabaketa eta elkartasun jaialdia

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsentzat urte berezia da aurtengoa. Hogeita bost urte igaro dira jada sudur gorriak eta zapata handiak jantzi eta herriz herri euskara eta alaitasuna zabaltzen hasi zirenetik. Bizitako abenturak ospatzeko disko sinfonikoa grabatu zuten pailazoek Euskadiko Orkestrako musikariaren laguntzaz. "Sentitu, pentsatu, ekin!" lanean urte hauetan bildutako abestien aukeraketa aurki daiteke.

Baina honetaz gain, ikuskizun berezia ere prestatu zuten, Euskal Herrian zehar aurkezten ari direna.

Bira honetan, pailazoek jakitera eman dutenez, ez dira bakarrik egon, Lasarte-Oriako bi taldetako kideak Dinbi Banda batukada eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako bi ikasle talde izan dira Iruñeako Anaitasuna kiroldegian, Gasteizko Men-



Pirritx, Porrotx eta Marimotots Kukuka dantza eskolako taldeko eta Dinbi Bandako kideekin Kursaal-ean.

KATXIPORRETA

dizorrotza kiroldegian, Barakaldoko BECen eta Donostiako Kursaal-ean.

Eta bi talde hauek "Sentitu, pentsatu, ekin!" ikuskizunaren grabaketan izango dira

martxoaren 16an, Tolosako Leidor antzokian. Kilometroak-en aldeko ekimenen barne pailazoek bi saio egingo dituzte eta honetaz baliatuz emanaldia grabatuko dute.

#### Elkartasun jaialdia

Baina lehenago hitzordu garrantzitsua izango dute Lasarte-Orian.

Bihar, martxoaren 9an, Aitor Landa hauraren alde

antolatutako elkartasun jaialdian, "Sentitu, pentsatu, ekin!" ikuskizuneko bi emanaldi eskainiko dituzte Manuel Lekuona Kultur-Etxean.

Aitor Landa herritarrek garuneko paralisia du eta egun Galiziako zentro berezi batean dago tratamendua jasotzen. Emanaldietan bildutako dirua Aitorren gurasoei tratamendua ordaintzen laguntzeko izango da.

Oraingo honetan gainera Kukuka-ko dantzariekin batera Jalgune-ko lagunek parte hartuko dute oihaltza gainean elkartasunari haien ekarpena egin.

Azken sarrerak Manuel Lekuonan daude salgai.

Era berean, bertara hurbildu ezin direnek edo ekonomikoki lagundu nahi dutenek kontu korrante berezi bat dute haien ekarpena egin ahal izateko: 2101-0048-21-0128308954.

# Saria gidabaimena euskaraz ikasteagatik

Haizea Bravo, Iker Elizegi eta Saioa Gomez herritarrak izan dira saria lortu duten gazteak

**Buruntzaldeako Udalek "Gidabaimena euskaraz" egitasmoa 2010. urtean jarri zuten martxan. Gero eta gehiago dira gidabaimena euskaraz ikasteko pausoa ematen duten herritarrak, 2012. urtean, 113 ikasle izan dira. Udalek ekimena sustatzeko, autoeskola bakoitzeko azterketa teorikoa ordaintzeko dirulaguntza zozketatzen dute. Aurten Lasarte-Oriako irabazleak Haizea Bravo, Iker Elizegi eta Saioa Gomez izan dira. Atzo arratsaldean egin zen saribanaketa.**

## Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oriari dagozkion, "Gidabaimena euskaraz" egitasmoa sariak atzo arratsaldean banatu ziren Udaltzatzen artean.

Lasarte-Oriako Euskara batzorde burua Boris Nogales, egitasmoan parte hartzen duten autoeskoletako arduradunak eta Haizea Bravo eta Iker Elizegi sarituak izan ziren bertan. Saioa Gomez irabazleak ezin izan zuen sari banaketan egon kanpoan lan egiten duelako eta bere amonak Felixi Tapiak jaso zuen saria.

## Zozketa

Buruntzaldeako hamaika autoeskolatan gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz atertzeko aukera eskaintzen dute eta Lasarte-Oriako hiru autoeskola dira, Mugica, Lasarte eta Izarra autoeskola.

Hiru autoeskola hauetan 2012. urtean euskaraz azterketa gairatutako zuten artean, zozketa egin zen otsailaren 7an Andoaineko Udalean eta Haizea Bravo, Iker Elizegi eta Saioa Gomez izan ziren 400 bat euroren irabazleak.

## Kopurua handitzen

2010. urtean jarri zen martxan "Gidabaimena euskaraz" egitasmoa.

Buruntzaldeako Udalek 2009-2010 ikasturtean dirulaguntzak bideratu zituzten autoeskoletan behar zuten materiala euskaraz argitaratzeko eta horrela ekimenarekin bat egin nahi zuten

autoeskolak materialarekin hornitu zituzten.

Ordoren "Semaforo berdea! Gidabaimena euskaraz" kanpainari ekin zioten Udalek eta urtetik urtera gidabaimena euskaraz ikasten duten gazteen kopurua bikoizten doa, baita azterketa gairatutako eredu ere. 2010. urtean 34 ikasle azterketa teorikoa euskaraz gairatutako bazuten ere, 2011ean 60 izan ziren eta 2012an 113 ikasle.

## Euskaraz egiteko erabakia

Lasarte-Oriako "Gidabaimena euskaraz" egitasmoa irabazlearen iritzia eta esperientzia jasotzeko aukera izan dugu sari banaketa baino lehen.

Gidabaimena euskaraz atertzeko orduan haien ikasketak euskaraz egin izana edo euskara haien ama hizkuntza izatea lehenetsi dute arrazoi bezala.

"Ikasketa guztiak euskaraz egin ditut eta azkenean ez neukan horrelako beldurrik ere," onartu du Haizea Bravok.

Saioak berriz, "nik euskaraz egin nahi nuen eta autoeskoletan galdetu nuen. Nire ama hizkuntza da eta aukera zegoenez egin nuen," aipatu digu.

## Itzulpenarekin arazoak

Hala ere, hitz teknikoak ulertzeko arazoak izan zituztela adierazi digute.

"Bazeuden hitz batzuk ez zirenak ongi ulertzen" aipatu du Ikerrek.

"Kontzeptuak baino, galdera batzuk idatziak zeuden



Felixi Tapiak, Haizea Bravo eta Iker Elizegi Lasarte-Oriako autoeskoletako arduradunekin, Imanol Diaz, Vanesa Santamaria eta Ana Mugica.

erarengatik zailak izan ziren ulertzen. Ez zeuden ongi idatziak eta autoeskolakoei zer esan nahi zuten galdetu behar izan nien," onartu du Haizeak.

Saioa haratago doa, "itzulpen txarra zen, sintaxia eta morfosintaxia ez zen egokia. Gauza batzuk eskematikoki daude azalduak eta lexikoa ez da normalizatua, berebela bezalako hitzak daude. Gainera, on line egiteko aukera dago, baina argitaletxe bakoitzak hitzak bere erara ditu itzuliak. Nahiz eta euskara nire ama hizkuntza izan, nahiko lan izan nuen esaldiak ulertzen".

## Azterketan ustekabeak

Honetaz gain, azterketa teorikoa egiterako orduan ezusteko tekniko batzuk izan zituztela aipatu digute.

"Azterketara iritsi eta guz-

tiak sartu ziren. Ni bakarrik geratu nintzen eta nirekin batera, beste neska bat geratu zen kanpoan. Orduan, berak Haizea nintzen galdetu zidan eta euskarazko azterketa oraindik iritsi ez zela azaldu zidan," aipatu digu Haize Bravok.

Ikerrek ere "ordenagailuz egin behar genuen baina ez zegoen wifi-a eta azkenean paperean egin behar izan genuen. Azterketa erdian, berritoki ere, ordenagailuetara pasa nahi gintuzten eta ezet esan behar izan genuen," aipatu digu.

Saioa Gomezek berriz, "bigarren aukera ateratu nuen eta horretan, eskuz egin behar izan nuen azterketa. Liburu ia buruz nekien eta galdera batean nahiz eta erantzuna zein zen jakin dudak izan nituen erabilitako hizkuntza

eta morfosintaxia zirela eta," adierazi digu.

## Lana egiteko

Horregatik, Saioa Gomez herritarraren ustez, arlo honetan euskararen normalizazioa lortu nahi izanez gero lan asko dago egiteko.

"Azterketan dauden pertsonak ez dakite euskaraz eta haiei ere dudak gaztelaraz galdetu behar dizkiozu. Azterketa praktikoa ezin da euskaraz egin, euskaraz dakien aztertzailek ez dagoelako. Biak euskaraz egiteko aukera egon beharko litzateke. Eta horretarako ahaleginak egin beharko lirateke," aipatu digu.

Hala eta guztiz ere, oztopoak oztopo, hirurek gidabaimena euskaraz ikastera animatzen dituzte herriko gazteak.

## Buruntzaldea euskaraz ekimena sare sozialetan

Buruntzaldeako udalek elkarlanean sortutako Buruntzaldea Euskaraz ekimenak dagoeneko sare sozialetan profilak ditu.

Ekimeneko sustatzaileek jakitera eman dutenez, Buruntzaldea Euskaraz izenarekin aurki daitezke Facebook-en eta Twitter-ren.

"Eskualdeaz jakin nahi baduzu, Facebook-eko "atsegin dut" botoia sakatu edo izan zaitez Twitterreko profileen jarraitzaile," adierazi dute.

Bi sare sozial hauen bitartez, ekimen, egitasmo, eta gertakari ezberdinen



berri emango dute Udalek, hala nola, euskararen erabilerari indartzeko eskaintzen dituzten beka, dirulaguntza, zerbitzu eta lan-eskaintzen ezberdinen berri emango dute.

Horretaz gain, albisteak elkarbanatzeko aukera ere izango dela adierazi dute.

Eta gidabaimena euskaraz kanpainako irabazlearen argazkiak ikus daitezke facebook kontuan, esate baterako.



Sari banaketa ekitaldian 400 eurotako saria eman zieten.



Arantza Sein Psikologoa

# “Zaintzailea zaindu behar da”

■ Senideen zaintzan dabilzanentzat “Emozioen kudeaketa” ikastaroa apirilean egingo da ■ Zaintzaileentzako herriko laguntza taldean kide berriak hartzeko prest

*Gizarte Zerbitzuetatik hurbileko senitartekoekin zaintza-lanak burutzen dituzten herritarrentzat “emozioen kudeaketa” ikastaroa antolatuta zen otsailean Arantza Sein psikologoarekin eta apirilean berriz errepikatuko da. Honetaz gain, herrian orain bi urte zaintzaileentzako laguntza taldea osatu zen Gizarte Zerbitzuetan Aldundilaren Sendian egitasmoaren baitan eta Arantzak gidatzen du honen jarduna hasieratik. Talde honetan senideen zaintzan dabilzan pertsonen euren egoera berean dauden herritarrekin batera esperientziak, arazoak, pozak elkarbanatzen dituzte.*

Maider AZURMENDI

Zaila da zaintzailea izatea. Askotan bakarrik sentitzen dira, senidearen gaixotasuna eta emozioen gora beherak kudeatu behar dira egunerokoa eta lan honetan ez etsitzeko, beharrezkoa da psikologoaren ustetan ahalik eta tresna gehien edukitzea. Zaintzailea informatuta egotea funtsezkoa da baita ingurukoena babesa eduki eta sentitzea.

Udalak “Emozioen kudeaketa” ikastaroaren arrakasta ikusita, bigarrena antolatuko du. Apirilean izango da eta bi orduko lau saio izango ditu.

**Emozioen kudeaketa ikastaroa bigarrenegiz egingo da. Zergatik uste duzue arrakasta izan duela?**

Beno hasteko kontutan izan behar da emozioak gure parte direla eta hauekin bizi izan dugula beti. Baina hauek ezagutu eta kudeatzen jakin beharko genuke eta tresna nahi ditugu horretarako.

Kasu honetan pertsona dependenteen zaintzaile diren neurrian, pertsona hauen emozioak ezagutzeko tresnak nahi dituzte, eurekin nola jokatu jakiteko.

**Nola kudeatu behar dira emozioak?**

Ikastaro honetan zaintzaileak direnez badaude komunak diren egoerak. Adibidez gaixotasun baten diagnostikoak urduritasuna eragingo du zaintzen dugun pertsonan, sintoma berriek ere beldurrak eta antsietatea, ezintasunak eragingo ditu gaixoan eta horrek emozionalki eragin handia izango du, triste egongo da, haserre agian bere buruarekin hainbat gauza egin nahi eta ezin duelako...

Araza horien aurrean hartu beharreko jarrerak zaintzailearentzat erronka bat dira eta malguak izaten ikasi

behar dute. Oso ohikoa da zaintzaileak pentsatzea dena ondo egin behar duela eta hori burutik kendu behar zaio. Zaintzan, egoera batzuetan hanka sartzea normala da, inork ez digu esan nola zaindu behar dugun gure senidea. Gainean hartu den ardura bat izaten da normalean egoera hala suertatu delako eta akats horietatik asko ikas daitekeela kontutan izan behar da.

**Ondo kudeatu ezan zer?**

Blokeoa. Sustatu behar da zaintzailea aktibo izatea, gauza berriak probatzea.

Adibidez erabakitzen denean eguneko zentro batera eramatea gure senidea, beldur asko egoten da, “ondo zainduko dute? ondo egongo da han? zer esango dute nitaz bizilagunek?” Burutik gauza asko pasatzen zaizkio zaintzaileari eta animatu behar zaio erabakietan. Aktibo izan behar da, esan bezala, gauza berriak, jarrerak, frogatzera bultzatu. Gaizki ateratzen bada ere, ikasiko dugu eta pixkanaka definitzen joango gara senidearekin egin beharreko bidea zein den.

Aldi berean errealtatearen kontzientzia hartu behar du zaintzaileak, gaixotasunaren faseak zeintzuk izango diren ezagutu, informazioa eskatu eta esperientzia hori bizi izan dutenen testigantzak baliatu. Zaintzaileak ondo ezagutu behar du datorkiona.

**Zaintzaile lana emakumeen eskuetan uzten da gehienetan zergatik uste duzue?**

Bai, zaintzailearen perfila mantentzen da, emakumeak dira nagusi eta 45-65 urte artekoak. Bikoteen kasuan berdindua dagoela esan daiteke, gizonak zaintzen du emaztea eta alderantziz.

Azken urte hauetan egia da perfila pixkat aldatzen ari dela. Badira gizonak euren



Arantza Sein Villa Mirentxun elkartzan da laguntza taldekoekin hamabostean behin.

amen edo aiten zaintza hartu dutenak eta orain langabezia medio, emakume zein gizon gerost eta gazteagoak dira senide gaixoen zaintzan dabilzanak.

**Zeintzuk izaten dira zaindu beharrekoen gaixotasunak?**

Bi multzo nagusi daudela esan daiteke. Batetik pertsona zaharrak, fisikoki oso mugatuak daudenak eta 24 ordutako zaintza eskatzen dutenak eta bestetik, demen-tziak.

Bigarren multzo honetan adinak ez dauka zerikusirik eta jende gazteagoa dago. Horregatik zaintzaile lanetan alaba gazteagoak daude edota jubilatzeke adina dutenak.

**Herrian bi urte dira laguntza taldea dagoela zaintzaileentzat. Zer lan egiten duzue?**

Ikastaroko ardatzak lantzen ditugu modu sakonagoan. Taldea bi astetik behin elkartzan da Villa Mirentxun eta oso aberasgarria da bertan egiten dugun lana.

Taldeko kideen inplikazioa handia da. Jendeak uste du gure penak kontatzeko elkartzan garelako baina ez da horrela. Askotan egiten dugu negar baina ondo pasatzen dugu ere eta batez ere informazioa trukatzeko gunea da. Zaintzaileak gainean daraman karga, motxila husteko gunea ere bada. Hemendik lasai ateratzen dira, indarrarekin beste bi asteri aurre egiteko.

Talde hauetan parte hartzeko urratsa ematea oraindik jende askori kostatzen zaio. Lotsa ematen die berea herritar ezezagun talde baten aurrean azaltzea, gizarte zerbitzuetara etortzea... baina

tresna baliagarri bezala ikusi behar da eta noski talde kideek errespetuz jokatzeko beti, konfidantzaz.

Denen arazoak lantzen dira azkenean, Lasarte-Oriako taldean oso dinamika, harreman ona lortu da eta badakit hemendik kanpo ere gelditzen direla.

**Doluarik ikastaroan saio oso bat eskaintzen zaio...**

Funtsezko gaia da eta landu beharrekoa. Dolu mota desberdinak daude baina bi dira nagusi eta hauen baitan fase ezberdinak bizitzen dira. Zaintzaileak presente izan behar du bere bizitza aldatuko dela senidea hiltzean.

Hala ere, bi dolu mota nagusi daude. Batetik demen-tziak daudenean dolua gaixoa bizirik dagoenean pairatzen du familiak eta zaintzaileak, gaixotasunaren eraginez pertsonaren gainbehera etengabekoa da eta egoera asko luzatu daiteke denboran. Hori kudeatu behar da etsipenean eta depresioan ez erortzeko.

Bestetik, dolu klasikoa, gaixoa hiltzen denekoa. Honetan eragin handia du inguruak, familiaren babesa izatea funtsezkoa da.

Zaintzaileek egoerarekin amaitzeko gogoa izaten dute momentu askotan baina aldi berean gaizki sentitzen dira maite duten horren heriotza desiatzen dutelako nolabait. Sentipen hau lantzen dugu, normala da bukatu nahi izatea, maite dutena gaizki ikusten dute eta euren bizitza berreskuratu nahi dute.

**Hil ondoren zer?**

Ba fase berri bat da. Batzue-

tan taldera etortzeko beharra sentitzen dute batzuek. Babesa behar dute euren bizitza berreraikitzeke. Bakoitzak bere denbora behar du eta normalean egia da taldean ibili den jendeak hobeto eramaten duela galera, landuta dute eta falta sumatu arren, gogoz ekiten diote euren bizitzako fase berriari.

**Egunerokoa zaintzaileak zaindu behar direla ahaztu egiten da?**

Bai guztiz, zaintzailea zaindu behar da. Kontutan izan behar da askotan anai-arrebak daudenean batez ere, bada-goela joera zaintzaren ardura ezkondu ez denak, lanik egiten ez duenak, gurasoen etxean gelditu denak hartzea badirudi horien atzean frakos txikiak daudela eta ondorioztatzen dute “nik bakarrik balio dut nire gurasoak zaintzeko”. Ideia hau oso zabal-duta dago zaintzaileen artean eta erakutsi behar zaie ez dela horrela. Edozein ez da senideak zaintzeko gai eta ondo ari direla gogoratu behar zaie.

Beharrezkoa da zaintzaileak oreka emozionala mantentzeko gai izatea.

**Zer esango zenieke zaintzaileei taldean parte hartzeko?**

Aipatutakoa, taldeak babesa ematen du, informazioa. Bertan ulertuak sentituko dira eta besteen esperientziatik ikasi ahal izango dute. Taldean bakarrik ez daudela sentituko dute.

Kide berriak onartzeko moduan gara eta gizarte zerbitzuetara etorrita emango zae informazio guztia.

## LABURRAK.-

## Santos Uribe Espainiako txapeldu

Zumeatara taldean dagoen Santos Uribe herritarra Zaragozan martxoaren 2 eta 3an burutu zen pista estaliko Estatuko betaranoen mailako txapelketan parte hartu du eta urrezko domina ekarri du Lasarte-Oriara.

Santosek 3.000 metro martxa proban parte hartu zuen 75-80 urte arteko proban eta irabazle izan zen. 79 urteko herritarrak "bat falta zait 80ak izateko" gustura parte hartu zuen txapelketan.

Berarentzat pena handia izan zen maila honetako bakarra izatea, "Kataluniako bat etortzen zen lehen lehiatza eta nire taldeko beste bat ere, baina adinean aurrera goaz eta normala da" aipatu digu. Pista estalian martxa modalitateko proba gutxi daudela ere azpimarratu du.

## Aste Santuan jokoak eta kirola

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak 2001 eta 204. urtean jaiotako gaztetxoek zuzendutako kirol eta joko ekintzak antolatu ditu Aste Santuko oporretan, zehazki, martxoaren 25etik apirilaren 5era bitarteko lan egunetan.

Jarduera honetan parte hartzen dutenek ohikoak ez diren kirol eta joko ugari ezagutu eta hauetaz gozatzeko aukera izango dute, ur jolasak edo izotzan patinatzea, esate baterako.

Txuri Urdinera eta mendira egingo duten irteera izan ezik, saioak Udal kiroldegian egingo dira, goizetan 9:30etik 12:30ra.

Ekintzen prezioa 81,90 eurotako da kiroldegiko bazkide direnentzat. Honen barne daude hamaiketako, garraioa, Txuri Urdinera sarrera eta beharrezko materiala.

Kirol Zerbitzuko arduradunek jakitera eman dutenez, taldeak 20 partaide izango ditu eta izena emateko hurrenkerak kontuan izango da hau osatzeko.

Izena ematea Lasarte-Oriako Udal kiroldegiko bulegoan egin behar da, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:30ra eta 17:00etatik 19:00etara. Informazio gehiago eskuratzeko ere bulegora hurbildu behar dira interesatuak.

## TXIRRINDULARITZA.-

## Bazpiko gazteen hasiera ederra

Campoo Ibaetan eta Carbayeda Hondarrribian irabazle izan dira

**Errepideko txapelketak hasi dira txirrindularientzat. Bazpi txirrindularitza eskolako lagunak indarrez hasi dira, Boris Campoo eta Luken Carballedak lasterketa bana irabazi dute.**

Nerea EIZAGIRRE

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta Fullgas edo Andoaingo txirrindularitza eskolan dabilzan herriko gazteek errepideko txapelketen denboraldiari hasiera eman diote. Lehen lasterketetan parte hartu eta horietako bitan Ibaetan eta Hondarrribian, Buruntzazpiko Boris Campoo eta Luken Carbayeda irabazle izan dira, hurrenez hurren.

Otsailaren 23an, Donostiako Ibaeta auzoan kadete



Boris Campoo Bazpi txirrindularitza eskolako gaztea, eskuinetik hasita bigarrena, podiumean.

mailako lehen lasterketa izan zen, XXXV. Ibaetako Saria. Honetan Boris Campoo irabazle izan zen. Taldeko Iñigo Altunak ere parte hartu zuen honetan.

Bestalde, martxoaren 2an, infantilek Hondarrribiako Sarian probarekin eman zieten hasiera lasterketei eta Luken Carballeda gaztea gailendu zen.

## Udaberri Oroimenezkoa

Junior mailako denboraldia berriz, Eibarren hasi zen Udaberri Oroimenezkoarekin.

Buruntzazpi eskolako Xuban Errazkin, Arkaitz Muriello eta Andoaingo Txirrindularitza taldeko Xabier Mitxelena izan ziren lehiak eta Errazkin lehen urteko junior mailako zortzigarren sailkatua izan zen.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 09  
Michelin, 10:30ean  
Ostadar-Lengokoak  
Infantil Txiki, kopa

Compañon, Gasteiz, 11:45ean  
Alaves-Ostadar  
Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Trintxer, Txintxerpen, 12:00etan  
Trintxerpe Azkuene-Texas  
Lasartearra I. Kadetea, kopa

Michelin, 14:00etan  
Ostadar-Lengokoak  
Infantilen Ohorezko maila, kopa

Mintxeta, Elgoibar, 14:40ean  
Elgoibar-Ostadar  
Emakumezkoen Liga

Michelin, 15:30ean  
Ostadar-Euskalduna  
I. Jubenila, kopa

Herrera, Donostia, 15:30ean  
Asoleus-Texas Lasartearra  
I. Erregionala, kopa

Puio, Donostia, 15:30ean  
Vasconia-Ostadar  
I. Infantil, kopa

Arratzain, Billabona, 16:00etan  
Billabona-Ostadar  
Jubenilen Ohorezko maila

Ondartz, Hondarribi, 16:15ean  
Hondarribia-Ostadar  
Erregional Ohorezko maila

Michelin, 17:15ean  
Ostadar-Oiartzun I. Erregionala, igoera

Arizti Handi, Lazkao, 10:00etan  
Lazkao-Ostadar Alebina, kopa

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 08  
HERRIKO TXAPELKETAK  
Kirol gunea, areto-futboleko kantxa  
19:30ean, Txindoki taberna-Buenetxea taberna  
20:20ean, Izkiña taberna-Izarra bitxitegia  
21:10ean, ISU Leihok-Indaux

Larunbata 09  
HERRIKO TXAPELKETAK  
Kirol gunea, areto-futboleko kantxa  
10:30ean, Ilargi taberna-Ana eta Soi ileapaindegia  
11:30ean, El Punto taberna-Urdaneta H.K.  
12:30ean, Albariñeria Vertical-Oria Kristaldegia  
13:30ean, Trumoi taberna-Balardi harategia

Kiroldegia, 17:30ean  
Aldaz H.K.-Zarautz  
Nazional B maila

Igandea 10  
Kiroldegia, 11:15ean  
ISU Leihoko-Tellatu Berri Zaldibi  
Gipuzkoako Liga

## SASKIBALOA

Larunbata 09  
San Ignacio de Loyola ikastetxea,  
Doñostia, 09:00etan  
Easo 00 Loyola Txiki-Landaberri  
Infantil txiki neska, partehartzea

Kiroldegia, 15:30ean  
Ostadar-Arizmendi Eskoriatza  
Kadete neska, partehartzea

## PILOTA

Larunbata 09  
Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan  
Intza-Eskoriatza Eskuz binaka, II. kadetea  
Hernani, 16:30ean  
Hernani 2-Intza Eskuz binaka, infantilak

## IGERIKETA

Larunbata 09 eta Igandea 10  
Santurtzi, goizez 10:00etan; larunbatean  
17:00etan eta igandean 16:30ean  
Buruntzaldekoa IKT-ko taldeko  
infantilek Euskal Herriko Neguko  
txapelketan parte hartuko dute.

## ERRUGBIA

Igandea 10  
Michelin, 09:00etan  
Beltzak Ostadar Jalai errugbi  
eskolako alebin eta benjamin  
mailetako gaztetxoek  
entrenamendua izango dute.



Michelin, 10:15ean  
Beltzak Ostadar Zarautz-Eibar  
Eskolarteko infantilak

Michelin, 11:15ean  
Beltzak Ostadar Gure Etxea-Baztan  
Euskal Liga, kadetea

OHARRA: Atsedendaldian zozketa izango da

## GIMNASTIKA

Igandea 10  
Oartzun, 10:00etan  
Zumaburu-Sasoeta eta Landaberri  
ikastetxeok alebin taldeek Udaberriko  
txapelketako lehen jardunaldia dute.

## DUATLOIA

Larunbata 09  
Durango, 15:00etan  
Herriko hainbat atletek Euskadiako  
Duatloia Labor txapelketa den  
Durangoko VII. Duatloia proban  
parte hartuko dute.

## ATLETISMOA

Larunbata 09 eta Igandea 10  
Luis Puig belodromoa, Valentzia  
LOKEko Eneritz Busto atletak  
kadete mailako Estatuko  
txapelketan parte hartuko dute.

Larunbata 09  
Antonio Elorza belodromoa, Donostia,  
10:00etan  
Lasarte BHI, Landaberri eta  
Sasoeta-Zumaburu-ko gazteek  
eskolarteko txapelketako  
jardunaldia dute.

Igandea 10  
Donostia, 10:00etan  
Herriko hainbat atletek Berdebidea  
proban parte hartuko dute.

Beasain, 11:00etan  
Herriko hainbat atleta Beasaingo II.  
Herri lasterketan izango dira.

Aia, 11:30ean  
Herriko hainbat atletek Aiako Mendi  
Lasterketan parte hartuko dute.

## JUDO

Igandea 10  
Iruñea, 11:00etan  
LOKEko Esteban Martinezek Junior  
mailako Espainiko txapelketako  
eremuko sailkapen saioa du.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 09  
Azpeitia, 10:30ean  
Bazpi Txirrindularitza eskolako eta  
herriko kadeteak XXXIII. Azpeitiko  
Saria proban izango dira.

Hernani, 16:30ean  
Bazpi Txirrindularitza eskolako  
infantilek Hernaniko Saria proban  
parte hartuko dute.

Igandea 10  
Biyak Bat elkarte, 09:00etan  
Ostadar SKT-ko zikloturistek  
Amezketara egingo dute irteera.

Errenteria, 16:00etan  
Bazpi Txirrindularitza eskolako  
juniorrek XXX Errenteria Hiria  
proban parte hartuko dute.

## BOLA-JOKOA

Igandea 10  
Mutilloa, 10:00etan eta 16:30ean  
Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak  
Lehendakari txapelketako lehen  
saioa jokatu dute.

## Agenda

Gaur, ostirala 08, Lasarte-Orian



### Emakume langilearen eguna

Emakume langilearen Nazioarteko eguna da gaur. Hau gogoratzeke Lasarte-Oriako Udalak eta herriko hainbat elkarte egitarau berezia antolatu dute. 1977. urtean Nazio Batuen Erakundeek martxoaren 8a emakumeen eskubideen aldeko nazioarteko eguna izendatu zuen arren, 1911. urteko ospatzen da egun hau.

#### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**16:45ean**, elkarretaratzera Manuel Lekuona aurrean.

**19:30ean**, EPA-HHI-ko Lan eta Lan antzerki taldeak "Milagro en casa de los Lopez de..." lana eskainiko du.

#### SEMBLANTE ANDALUZ

**19:30ean**, Nerea Segura elikadura eta dietetika adituak hitzaldia eskainiko du.

**Ostean**, emakumeentzako afaria eta dantzaldia izango dira. Rocioko kofradiak antolatua.

#### ARAETA JATEXE

**21:30ean**, herri afari gozoa emakumeentzat.

### Musika

#### MENDI KAFE ROCK

**Larunbata 09, 20:00etan**

Nia Moore King bakarlarik "The Bluebirds" taldearen laguntzaz soul, jazz eta blues doinuak eskainiko ditu, Kultur kale zikloaren barruan. Doan.

#### JALGI KAFE-ANTZOKIA

**Larunbata 09, 23:00etan**

Oreindik taldeak "Berdinelite" diska berria aurkeztuko du. Rock-funk doinuak izango dira nagusi. Jaialdi honetan, Blami Dj-ak ere parte hartuko du. Kultur kale zikloko ekitaldia da.

### Erakusketa

#### JALGI KAFE-ANTZOKIA

**Martxoaren 17ra arte**

Ttakun kultur elkarteak antolatzen dituen udal-erakusketa "Duda? Euskaraz Uda!" erakusketa ikusgai dago.



## Lasarte-Oria

### Zinea

#### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Igandea 10, 17:00etan**

Haurren zinea atalean, "Saxana y el libro mágico" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.

**Igandea 10, 17:00etan**

Helduen zinea atalean, "Si de verdad me quieres..." filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

### Bakarrizketa

#### ABEND KAFE-ANTZOKIAN

**Ostirala 08, 21:00etan**

Mario Simancasen bakarrizketaz gozatzeko aukera. Aurretik Barrioketea izango da. Sarrera, 25 euro dira. Afarirako erreserba egin behar da, 656 794 055.



### Hitzaldiak

#### GANBO ITURRI ELKARTEKO EGOITZA

**Asteazkena 13, 19:00etatik aurrera**

"Pyreneus" sarea hitzaldi zikloaren

barruan, Jose Mari Larramendi Jose Maria Arizmendiarieta elkarteak kideak "Lana da erabakigarria, kapitala, berriz, bitartekoa" hitzaldia eskainiko du.

### Elkartasuna

#### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Larunbata 09, 16:30ean eta 19:00etan**

Aitor Landa herritarra laguntzeko Pirritx, Porrotx eta Marimotsek bere 25. urteurrena ospatzen duen "Sentitu, pentsatu, ekin" emanaldia eskainiko dute. Kuku antzerki eta dantza eskolako dantzariak eta Jalgune elkarte lagunak ere izango dira bertan.

## 18. Korrika

#### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Osteguna 14, 20:00etan**

Korrika kulturalaren barruan, "Ez gara Palestinaz ari" ikuskizuna eskainiko da. Antzerkia, bertsoa, musika, poesia... batzen ditu. Unai Muñoz eta Ander Lizarralde bertsolariak, Imanol Kamio piano jole eta akordeoi jolea, eta Aitor Atxega gitarra jolearen eskutik. Sarrera, leihatilan 3,50 euro; internet bidez, 3,24 euro.

**Ostirala 15, 20:00etan**

18. Korrika Lasarte-Orian aurkezpena egingo du, Muntteri-AEK euskaltegiak.

## Herritarren txokoa

### Elkartasun azoka

Donostiako Santa Teresa ikastetxeak elkartasun azoka txikia egingo du, gaur, martxoak 8. Bi proiektuentzako dirua jasoko dute: batetik Kolonbiako hauryangela batentzat eta bestetik Indiako iparmendebaldeko herrixketako emakumeekin lan egiteko.

Azoka goizez, 9:30 eta 13:30ak artean eta arratsalde, 15:15 eta 18:00ak artean egongo da irekia lbaeta auzoan dagoen ikastetxean.

### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza eraztuna, bi ordulari, zortzi betaurreko graduatu, patinete bat, euritako anorak bat, lau mugikor eta haur baten berokia.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezke, goizez 09:00etatik 13:00etara.



### Berpiztu lokal bila

Berpiztu Giza ekimenerako elkartea lokal bila ari da elikagaiak eta banaketa egiteko. Elkarteak astelehenero 100 familiari janaria banatzen dizkiete eta lokal bat behar dute bere ekintza aurrera eramateko. Lokala uzteko prest dauden herritarrek, 629 445 949 telefono zenbakira deitu behar dute.

### Biyak Bat-ekok irteera Iratxera

Biyak Bat elkarteak 2013. urteko irteerari hasiera emango die martxoaren 21ean. Oraingoan, Lizarraldeko egingo dute, zehazki Iratxeko monastegira.

Izena ematea gaur ireki da. Txangoan parte hartu nahi dutenek Biyak Bat elkarte bulegoan eman behar dute izena, 10:30etik eta 12:30era. Irteeraren prezioa 34 euro-takoa izango da elkarte bazarreentzako eta bazkide ez direnek, aldiz, 38 euro ordaindu behar dituzte.

### Eskutitza

#### Ibon Fernandez ETA-ko kide euskal presoak

Lehenago Txintxarri aldizkariak, "Ibon Fernandez Iradi Euskal preso politikoa" bezala aurkeztuz, azken orri osoa erabili zuen preso honekin egindako elkarrizketa plazaratzeko.

"Euskal preso politikoa", "konpondu beharreko gatazka", "disidentzia politikorengatik kartzelan", "espetxeak gaxotu egiten du", ..... eta antzeko topikoak josita zegoen elkarrizketa; lizun-usaina alde guztietatik. Berriketa asko eta gauza baliagarri gutxi.

Txintxarriko zuzendaritzaren zaletasun politikoa jakina da baina, denon diruarekin egiten den aldizkarian, alderdikeria hain bilusik azaltzea, onartezina da benetan.

Hala ta guztiz ere, gehien herritu ninduen izan zen preso honen egoera eredu bezala aurkeztu izana. Ba dirudi esklerosi anitza duela eta sentitzen dut, benetan diot, baina ez nekien gaxotasun hori lau pareten artean egoteagatik harrapatzen zenik.

Nik Ibon Fernandez orain dela hamazazpi edo hemezortzi urte ezagutu nuen. ETA-k diseinatutako eta herri asambladatan onartutako "sufrimenduaren sozializazio" plan hura aurkez-

teko, beste hainbat toki eta herritan egin zen bezala, gure batzokira Lasarte-ko lagun batekin etorri zen Ibon. Bilera hark ez zuen asko irau. Esan zituen astakeriak ezin izan genizkion jasan. Garai hartan gaxoturik zegoen ere, baina gorrotoak gaixotuta.

Handik gutxira, Ibonek herritik ihes egin zuen. Egia esan, berriak ez ninduen herritu. Mutil hau bezalako zenbat gazte azkeneko 30 urte hauetan bidea erratu zuen! Orain preso politikariaren estatusa aldarrikatzen dute. Hori-xe besterik ez genduen behar!

Adinez nagusiak ziren, politika egiteari uko eginez, gerra zikin batean sartu zirenean. Orain akabo, lema zaharrak baztertu eta apaltasun osoz egindakoari aurre egin beharko diote. Buru-lan gogorra, bai presoentzat eta baita senide eta lagunentzat ere: frustrazioa gainditu, legearen arabera egingo dako kalteak ordaindu eta bakoitzak apaltasun eta demokraziaren ildotik barruko bide berria jorratu beharko du. Horixe da denon artean eraiki behar dugun asmo handiko proiektu bakarra.

Juan Mari Alkorta

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



**Jokin Telleria** Oreindik taldeko bateria jotzaile eta kultur programatzailea

# “Lagunartean egin dugu diskoa”

“*Etxean*” aurkeztuko du Oreindik taldeak “*Berdinelite*” diskoa, larunbat gauean Jalgin

Oreindik rock taldeak ia urtebete egin du jo gabe, beraz, gogo handiarekin dira Jalgin larunbat gauean diskoa aurkezteko eta udan kontzertuak eskaintzeko. Zarautz, Andoain, Donostia eta Lasarte-Oriako dira Oreindik-eko kideak, baina Lasarte-Oriako taldea dela esaten dute, Sasoetan elkartzan direlako, Makulu Ken taldearekin batera darabilten lokalean, eta, lehen kontzertuak hemen eman zituztelako: Itoitz taldeari eskainitako kontzertua Jalgin 2009ko sanpedrotan eta Oreindik izenarekin Abend-en 2009ko abenduan VIII. Multimusikalaren barruan. Jokin Telleria bateria jolearekin hitz egin dugu taldearen lehen diskoari buruz.

## Jon ALTUNA IZA

Oreindik taldeko kideak duela ia urte bete hasi ziren Sasoetan disko berria prestatzen. Grabaketa ere lokalean egin dute, Jokin Telleriak azaldu digunez, “lasaitasunez, oso mantso, baina aldi berean oso gustura”, abuztuan hasi eta abendura bitartean. “Guk egin dugu dena, merke eta sekulako soinua dauka” esan digu bateria-joleak.

## Berdinelite izen bitxia da disko berriarentzat?

Abesti baten izena da. Asmatutakoa. Gizartea kritikatzeko modua da: Gizarteak, berez, jendea sailkatzeko, identifikatzeko eta kontrolatzeko ohitura dauka, hau da, ezberdinak direnak, beste era batera pentsatzen dutenak, seinatu eta apartatu egiten ditu eta berdin elite bat geratzen da.

## Zuen lehen diskoa da?

Bai, egin genuen maketatxo bat eta harrera ona izan zuen, Donostiako Jazzaldian jo genuen; Euskal Herria Zuze-

nean lehiaketako finalera iritsi ginen, Leioako maketen lehiaketan saria jaso genuen... Orain 9 abesti berri dituen lehen diskoa argitaratu dugu. 2009an hasi eta lasai-lasai goaz aurrera.

## Zer eratako diskoa da?

Rock eta funkia egiten dugu, baina nabari da, abestiak helduagoak direla. Gustura gaude.

## Taldea eta zuen estiloa jada finkatua al daukazue?

Egia esan, egiten duguna egiten dugula ere, gure ukitua dauka. Eboluzionatzen dugu, baina rock eta funkia hor dago beti. Ez dakigu nora goazen, azken finean gustatzen zaiguna egiten dugu. Ez diogu estiloari hainbeste begiratzen.

## Taldean sortu al duzue musika?

Bai, normalean, taldean abestien musikak sortu eta letra gehienak, gero Josu abeslariak egiten ditu. Oso onak dira.

Ahotsak garrantzia du baina instrumentuak ere bai. Ez dugu musika jotzen abeslariari “laguntzeko” soilik.



Jokin Telleria, Abend-en Oreindik taldearen lehen kontzertuan.

## Elkarrizketak osorik txintxarri.info webgunean

## Zein gai jorratzen dituzue?

Abesti askotan ageri da kritika soziala, eta amodioa ere bai. Denetarik dago.

## Abesti bat nabarmenduko al zenue diskotik?

Disko honetan abesti bereziena “Berdinelite” da, letrarengatik eta musikarengatik. Bitxia iruditu zaigu eta horregatik jarri diogu diskoari izen hori.

## Zeintzuk zarete taldean?

Bi andoaindar daude taldean, Alvaro Remachak, gitarra jo eta koroak egiten ditu eta Josu Etxeberriak abesten du; baxujolea Ibon Jiri Garcia donostiarra da; gitarra-jolea Haritz

Manterola, zarautzitarra, eta ni Jokin Telleria lasarteoriatarra.

Taldea Lasartekoa dela diogu, hemen entseiatzen dugulako eta gure lehen kontzertuak hemen izan zirelako. Jalgin Itoiz taldearen “tributoa” egin genuenean elkartu ginen, lehen aldiz -ez dugu horrelakorik berriro egin, baina, askotan oroitzen dugu-, eta gero, Oreindik taldearen lehen kontzertua Abend-en izan zen 2009ko Multimusikalean.

## Kolaboraziorik izan al duzue?

Noiznahi abestian Makulu Ken taldeko abeslari Xabi Herrerak kantatzen du. Lokala konpartitzen dugu Makulu

Ken taldearekin eta hauen diskoan parte hartu zuen Josu gure abeslariak. Abeslariaren arteko kontua izan da.

## Promoziorako bideo klipik egingo asmorik ba al duzue?

Bai egin dugu jada. “(Ta) non zaude?” abestiaren bideo-klipa atera genuen aurrerapen moduan, duela bizpahiru hilabete, eta mila bisitatik gora izan ditu interneten.

Eztiptotoko Ander Garzandiandia eta Aitzol Etxegoienek egin ziguten eta “Ispilua” izeneko lan batean Jalgin ezagutu nuen Jon Martinez “Txiki” aktoreak parte hartu du. Dena, guk, lagun artean eta ondo pasatzeko helburuarekin egin dugula da politena.

## Kontzertu gogoangarriak eskaini al duzue hiru urte hauetan?

Bai, adibidez Sustrai tabernan ez ginen ia sartzen, baina aldi berean politena izan zen. Eta bestea Donostiako Jazzaldikoa: BB King-en ondoren jo genuen, eskenatoki txiki batean, baina Jazzaldian. 80.000 pertsona zeuden Donostian.

## Estrainaldia al da Jalgikoa?

Bai, azken finean lagunartean aurkeztu nahi genuen diskoa. Ondoren Blamik jarriko du musika. Berak egin digu portadaren, CDen eta kamiseten diseinua, eta berak jarriko du musika larunbatean. Artista bat da eta denetarik egiten du. Oso harreman ona daukagu. Azkenean hori da, lagunartean egin dugu diskoa.

**Blami** Diseinatzaile eta disko jartzailea

# “Dantza egitea osasuntsua da”

Oreindik eta Blamiren arteko elkarlanaren lehen fruitua izan da Berdinelite diskoaren portada. “Harreman ona funtzekoa da ideia bat garatzeko. Bestela, hobe uztea, emaitza ez baita ez diseinugile ez bezeroaren gustukoa izango” esan digu aste honetan Blamik.

## Diskoaren portada egin diezu...

Ez dut CDA argitaraturik ikusi, baina esan didatenez ondo jaso dute. Ideiak ordenadorean landu behar dira estetikoki bezeroaren gustukoa izan arte.

## Nolakoa da portada?

Supermerkatu baten ataria eta parking huts eta iluna ageri dira

gauzez. Ordenadorean supermerkatuaren izena ezabatu eta diskoarena gehitu genion, grafiti handi baten itxurarekin.

## Aspaldian egin al duzu beste diseinu lanik?

Siglo20 Kafe Beltzan egiten diren emanaldietako kartel eta flyer guztiak egiten ditut.

Bestalde, aspaldion Longboard patineteentzat marrazki batzuek diseinatu ditut eta Shiatsuan oinarritutako terapien zentro baten logotipo eta irudia egiten dihardut.

Eta Hernanin, “gora! kamisetak” izeneko tailerlean, bi lagunekin, nikiak izan ezik, beste guztia guk egiten dugu, hau da, diseinua, estanzazioa



eta etiketatua. Kopuru txikiak ateratzen ditugu, baina dena saldu ere bai, Gipuzkoako eta Bilboko zenbait dendetan.

## Zer eratako musika jartzen du DJ Blamik?

Denetarik, erritmo on eta melo-



dia alai duen edozein musika, besteak beste, funk, jazz, bossanova, soul eta boogalooa. Era askotako musika da, ez naiz estilo konkretura mugatzen.

## Nolakoa izango da larunbatean Jalgiko saioa?

Ba, horixe, erritmo bizi eta melodia alaiak.

## Lortuko al duzu bildutakoak dantzan jartzerik?

Hori bertan direnen jarreraren araberakoa da, normalean neskek egiten dute dantzan, baina mutiek... gerria mugitzeko arazoak dituzte. Dantza egitea oso terapia ona eta osasungarria da eta mundu osoari gomendatuko nioke.